



Porrotx eta Marimototsek Fallu dendariaren laguntzaile lanak egin zituzten astezkenean, merkatuan.

## Pailazo lanpetuak

Porrotx eta Marimotots herrian ibili dira hurrengo DVD-rako grabazioak egiten

Saltzaile bereziak aurkitu zituzten, asteazkenean merkatura hurbildu ziren herritarrek, Porrotx eta Marimotots pailazoak. Hurrengo DVD-rako senegaldarrei buruzko erreportajea egiten ari dira eta horregatik, asteazkenean Fallu dendariaren laguntzaileak izan ziren. Honetaz gain, ostegun arratsaldean, herriko haurren laguntzaz, *Gora Sanfermin!* bideoкли- pra grabatu zuten Zabaleta auzoan. •



### Ane Labaka Gipuzkoako txapeldun

Ane Labaka bertsoariak bertso idatzietan Gipuzkoako eskolarteko txapela eskuratu du aurten ere. Gazteen mailako bat bateko finalean ere aritu zen maiatzaren 28an Lezon baina Urretxuko Amaia Iturriotz izan zen txapelduna. /4

## Txalaparta eta euskara ikasten

Asteartean, Michelingo lantegi ondoko frontoian txalapartaren doinua entzuteko aukera egon zen. Izan ere, Muntteri-AEK euskaltegiko ikasle eta irakasleek txalaparta ikastaroa egin zuten bertan. Giro onean, euskal instrumentu hau ezagutzeko aukera izan zuten guztiek, Tomas Arruti eta Haritz Iparragirrenen eskutik. Honela, txalaparta egiteko erabiltzen diren materialak, makilak nola hartu eta, noski, hainbat erritmo ikasi zituzten, hala nola, ttakuna, herrrena edo hauek konbin atuz, sagardoaren deia. •



Muntteri-AEK euskaltegiko hainbat ikasleek txalaparta jotzen ikasi zuten asteartean. Arg.: Muntteri-AEK euskaltegia

### GIZARTEA /3

**Herriko ikasleek urari buruzko proposamenak egin zizkieten alkateari**

### KIROLA /6

**ISU Leihoak-ek Gipuzkoako Ligako finala jokatuko du**

### KIROLA /6

**Ostadarreko emakume eta kadeteak kopa eta goieraren bila**

**muntteri**  
euskaltegia **aek**

- Euskara agiriak
- EGA
- Hizkuntza profilak (1-2-3)
- Euskalduntzeko maila guztiak

Geltoki kalea 17, behea  
20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 372863  
lasarte@aek.org

**ikasle euskara eman izena aek-n**

Azterketa ofizialak eta titulu homologatuak [www.aek.org](http://www.aek.org)



**Neure kabuz**



**"Kolokatua" dago??**

Hezkuntza ez formaleko proiektu baten arduraduna naiz; hartzaileak haurrak eta gazteak dira eta euskara hizkuntzaren normalizazioan eragiteaz gain hartzaileen heziketa prozesuan aisialdi hezitzailearen ikuspegiarekin eragitea bilatzen dugu. Uda garaian egitasmoak ugaritu egiten dira eta parte hartzea nabarmen hazten da. Zergatik ote?

Arrazoiak asko dira baina kudeatu ditugun 250 izen emateak aztertuz gero nabarmen antzematen da familiek urteko sasoi berezietan (eskola egutegia kolore gorrikoa den garaietan bereziki) euren seme-alabekin zer egin/non utzi/norekin utzi buruhauste bihurtzen dela. Eta hau ualdian areagotu egiten da.

Honetan familia askoren aukera (askotan bakarra) udako aisialdi eskaintza ezberdinetan izen eman eta haurra "kolokatzea" da.

Nabarmenduko nuke haurra bere heziketan erreferente zuzen diren familia-kideekin egotea lehenetsi behar dela; harremana giro adeitsu eta positiboan garatuko bada behintzat. Baina ezinezkoa den kasuetan, guraso eta etxetik kanpoko ama langile eta hezitzaile naizen ikuspegitik aholkatuko niekeena ondorengoa da: haurra non "kolokatzin" duten jakitea (ardura hau agertzea) ezinbestekoa dela, batean edo bestean berdina ez delako. Haurra norekin egongo den jakitea eta figura honekin zuzeneko harremana izatea. Eta ahal dela, izen emateak neurrian egitea.

Bejondeiela beraz aitona-amonak, osaba-izeba, bizilagun, kuadrilla lagun,...GUSTOZ eta AUKERAZ gure haurren heziketan pieza klabe bihurtzen direlako.

Azken hau horrela ez bada berriz; haurra beti hobeto egongo da espazio eta egitasmo hezitzaileetan profesionalen esku.

**Ainara Lasa**

**Zorion-agurrak**



**Naiara eta Aitor**

Zorionak bikote zuen egun handian familiaren partetik. Ondo-ondo pasa eta muxuak!



**Gabi**

Muxu handi bat basoko elforik politenarentzat! Zorionak maita



**Nahia**

7 muxu handi-handiak gurasoen eta Noraren partetik.



**Ana eta Adrian**

Zorionak hirukote! Muxu pila-pila Amaieur eta famili osoaren partetik.



**Enara eta Iker**

Gurasoen eta aiton-amonen partetik zorionak bikote!



**Malen**

Zorionak eta txokolatezko muxua zure lehenengo urtebetetzean.



**Saioa**

Zorionak zure 5. Urtebetetzean. Familia eta Maitearen partetik.



**Martina**

Zortzi muxu etxeko printzesarentzat, aita, ama eta Joaco-ren partetik.



**Ane Artola**

6 muxu erraldoi etxeko txikienari, zorionak eta ondo pasa! Gurasoak, Xabier eta Josu.



**Iker**

Zorionak zure hamabigarren urtebetetzean! Muxu handi bat familiaren partetik eta lagunekin ondo pasa.

**Azoka txikia**

**Eskaintza inmobiliarioak**

• Garaje plaza bat alokatzen da Lasarte-Oriako Mutiozabal kalean. Harremanetarako telefono zenbakia: 629 661 316.

• Garage bat alokatzen da Libertoko eraikinean, interesatutak deitu 667 812940 telefonora.

**Salerosketak**

• Salgai autorako 4 hagu (llanta) 195/ 50r 15 neurrikoak. Harremanetarako telefono zenbakia: 638 421 713.

**Lan-eskariak**

• Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta haurrak edo/eta helduak zaintzeko. Interna moduan eta erreferentziarekin. Harremanetarako telefono zenbakia: 678 285032.

• Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta haurrak, helduak

zaintzeko. Interna moduan eta erreferentziarekin. Harremanetarako telefono zenbakia: 638 965543.

• Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta haurrak eta helduak zaintzeko. Interna moduan eta erreferentziarekin. Arratsaldean. Harremanetarako telefono zenbakia: 639 863075.

• Baserrian lan egiteko, mendia edo basoak garbitzeko edo igeltsero lanak egiteko mutil bat eskaintzen da. Harremanetarako telefono zenbakia, 677 593 772.

• Neska eskaintzen da garbiketa lanetarako (etxe, jatetxe, taberna...) eta haur eta helduen zaintzarako. Harremanetarako telefono zenbakia: 677 383 414 edo 663 311 865.

• Lasarteko neska gaztea eskaintzen da abuztuan lana egiteko, umeak zaintzen. Harremanetarako telefono zenbakia, 677 823 141.

**Oharrak jartzeko:**

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com  
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

**Guardiak**

**EGUNEKOAK: 09:00-22:00**

**Ostirala, 4**

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

**Larunbata, 5**

Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567

**Igandea, 6**

Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567

**GAUEKOA: 22:00-09:00, Egunero**

Chucla, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

**Astelehena, 7**

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

**Asteartea, 8**

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

**Asteazkena, 9**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Osteguna, 10**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Jaiotzak**

Iago Izquierdo Garaloces, maiaztaren 30ean.  
Ane Gallego Moreno, maiaztaren 26an.  
Irati Navascues Cuesta, maiaztaren 25ean.

Sara Iglesias Toquero, maiaztaren 21ean.

**Heriotzak**

Antton Mari Pikabea Aizpurua, maiaztaren 29an 66 urte zituela.

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala**  
**Euskarako Batzordea**



**GFAko Kultura eta Euskara Departamendua**



**EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA**

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.





Herriko gaztetxoek alkateari uraren gaiaren inguruko eskaerak eta proposamenak egin zizkieten asteartean.

## Ikasleek uraren inguruko neurriak aurkeztu zituzten Udalean

**E**skola Agenda 21-ean lanean egon diren Sasoeta-Zumaburu ikastetxeke eta Landaberri ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasleek Udaltzar aretoa hartu zuten astearte eguerdian.

Udalbatzar berezi honetan, herriko gaztetxoek uraren gaia ardatz bezala harturik, ikastolan eta herrian egindako azterketak aurkeztu zituzten Jone Altuna, Hezkuntza saileko buruari, Marisa Zubiri Ingurumeneko lehendakariari eta Jesus Zaballos alkateari.

Honetaz gain, ikastetxeetan aurrera eramán dituzten neurriak jakinarazi zituzten, kartelak jarri, patruila berdeak...

Hemendik aurrera hartzen dituzten konpromezuak ere adierazi zituzten, hala nola, duxatu eta bainatzerakoan, etxeokoen uraren garrantziaz

eta ur kontsumo egokiaz hitz egin edo irekita ikusten dituzten iturriak itxi eta hondatua badago irakasleei esan.

Azkenik, Udalari eskaera eta proposamen ezberdinak egin zizkieten: kontzientzia-zio kanpainak, erreka eta ibai-ko kartel informatiboak, Udalaren eta herritarren uraren kontsumoa nola murriztu, kiroldegiko duxatan fitxa sistema ezartzea, etab.

Alkateak adi entzun zituen gaztetxoek esandako gauza guztiak, Udalaren eskutan dagoena egingo dela aipatu zuen zakarrontzi, iturri eta ibaia eta erreka garbiketaren harira eta hainbat ideia kontuan izango direla ere azpimarratu zuen.

Azkenik, ikasleek lanean jarraitzea animatu zituen eta Lasarte-Oriako Zuhaitzen liburu banatu zien guztiei.

### EPA-HHiren lekualdaketa

Astearte goizean burutu zen ohiz kanpoko udalbatzarrean, alkateak 2010. urteko ekitaldian kredituak aldatzeko gaur arte bideratu diren dosierren berri emateaz gain, kredituak aldatzeko 2010/1 dosiera onartu zen PSOE eta H11 alderdien bozkekin. Udaltzarrean ez zen PPko ordezkaria izan eta beste alderdi guztiak abstentitu egin ziren.

Honen bidez, 612.470 euroko mailegua eskatuko da Osasun Zentro berriko eraikinetako 3. solairua egokitu eta EPA-HH1-a lekualdatzeko.

Ricardo Ortega Ezker Batuako zinegotziak hezkuntzari dirulaguntzirik eskatu al zaion galdetu zuen, dossierrean agertzen ez baitzen.

Eta EAJko bozeramaileak, Estitxu Alkorta, "Ez dakigu zein irizpide erabiltzen den gastuen kontrola egiteko, ezta Udalaren lehentasunak zeintzuk diren. Gainera, ez da proiektu honi aurre egiteko egoera ona. Gure ustez, atzeratu beharko litzateke," adierazi zuen eta "superabita badago, zergatik mailegua eskatu?" gehitu zuen.

Alkateak Hezkuntza Sailak proiektu hau %40-%60 hitzarmenean sartu duela adierazi zuen. Bestalde, Sasoeta Zumaburu ikastetxeak Zumaburuko eraikinetako 4. solairua behar duela eta irailan EPA-HH1-ek bertatik aterata behar zuela azaldu zuen eta, beraz, lanak beharrezkoak zirela azpimarratu. •

### MUSIKA

## Hirugarren musika maketa lehiaketan errekorra: 127 lan aurkeztu dira

Lasarte-Oriako Udaleko Gazteria eta Festetako sailak antolatzen duen musika maketa lehiaketak parte-hartze errekorra egin du aurten, 127 lan. Hirugarren edizio honen parte-hartzaile kopuruak lehiaketaren harrera onaz gain, Lasarte-Oriako Maketa lehiaketa gero eta finkatuagoa dagoen lehiaketa dela adierazten du, izan ere, lehen edizioak 24 parte-hartzaile izan zituen eta 83, bigarrenak.

Horien guztien artean, hiru izango dira Lasarte-Oria saria eramateko aukera izango dutenak. Gainerakoak Euskadiko 14 ordezkari eta, beste batzuen artean, Bartzelona, Madril, Kordoba, Valentzia, Granada edo Errioxako musikariak ere badira. Nazioarteko ordezkariak Uruguayko parte-hartzaile baten eskutik dator aurten.

Irabazleek 1.000 euroko dirusaria jasoko dute. Era berean, epaimahaia Lasarte-Oria saria emango du, 700 eurokoa izango dena. Maketa berdinak ezingo ditu bi sariak jaso. Horretaz gain, irabazleek kontzertua eskainiko dute datozen San Pedro jailetan. •


### KIROLA

## Igeriketa ikastaroa helduentzako

Erdi mailako helduentzako igeriketa ikastaroa eskainiko dute udal kiroldegian, ekainaren 10etik uztailaren 2ra. Astelehenetik ostiralera, gaueko 20:30etatik aurrera emango da ikastaroa.

Izena emateko azken eguna ekainaren 7a da. Ikastaroak 77,47 euro balio ditu eta kiroldegiko bazkide direnentzat 43,05 euro.

Informazio gehiago nahi izanez gero kiroldegiko bulegora hurbildu behar duzue edo 943-376182 telefonoan ere informazioa eskatu dezakezue. •



Igeriketan trebatu nahi dutenentzako erdi mailako ikastaroa udal kiroldegian.

### UDALA

## Iradozikunaren ekimenak harrera ona izan du

Iradozikunaren ekimena martxan jarri zenetik hilabete pasa da. 150 idatzirik gora dira dagoeneko jaso direnak eta alkatetzak denei erantzuna eman die banan-banan. Harrera ona izan du, beraz, Lasarte-Oriako Udaleko alkatetzak hiritarrek beren proposamenak eta iradozikunak aurkezteko aurrera eman duen ekimenak.

Ekimenaren helburua hiritarren eta gertuen duten administrazioaren artean harreman zuzena eta arina sustatzea da, kezka edo udalerrian ikusten dituen beharrak adierazteko aukera emanez.

Gogoratu hiru direla iradozikunak helarazteko bideak. Bate-tik, on-line inprimakiaren bidez, [www.lasarte-oria.org](http://www.lasarte-oria.org) webgunean. Bestetik, Udalean bertan edo webgune berean eskuratu daitekeen instantzia dago eta hau udaletxeko atarian dagoen postontzi berdean utzi behar da. Eta, azkenik, posta elektronikoki bat bidaliz [iradozikunak@lasarte-oria.org](mailto:iradozikunak@lasarte-oria.org) helbidera. •

### ATERPEA

## Gasolina merkeago Aterpeako txartela erabiliz

Aterpeak, Lasarte-Oriako Merkatarien elkartek kanpaina berri jarri zuen martxan asteartean.

Honetan, Oriako Alleru gasolindegian despositua bete eta Aterpeko txartelarekin ordaintzen duten herritarrek, %2ko beharpena izango dute haien ordaintzetan. •



Osasun zentroko azken solairua hutsik dago. EPA-HH1 bertara lekualdatuko da.

# Gipuzkoako eskolarteko txapeldun izan da Ane Labaka bertso idatzietan

- Gauari buruz jarritako bertso sortari esker jaso zuen txapela aurreko ostiralean
- Larunbat arratsaldean Plazatik Gaztetxera-ko finalean kantatuko du Mutrikun

Ane Labaka Lasarte-Oriako bertsolariak urteroko zita izan du maiatzean Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketarekin. Lezoko Bekoerrotan Udala Kirolegian jokatu zen maiatzaren 28an finala eta gazteen mailan Urretxuko Amaia Iturriotz izan zen txapelduna bat batean, eta Ane Labaka herritarra bertso idatzietan. Bestalde, larunbat arratsaldean IX. Plazatik Gaztetxera txapelketako finalean kantatuko du Ane Labakak Mutrikuko gaztetxean.

JON ALTUNA

Azken bi urteotan ezin izan du Ane Labakak 2008an lortutakoa errepikatu. Orduan bat batean eta idatziz izan zen Gipuzkoako txapeldun, bi txapelak ekarri zituen etxera. Azken bi urteotan aldiz, idatzizkoa eskuratu

du eta bat batekoan Amaia Iturriotz-ek hartu dio aurrea. Iaz Euskal Herriko txapeldun eta txapelduordea izan ziren biak.

Bat bateko txapelketan, Ane Labakarekin batera, Amaia Iturriotz, Eñaut Martikorena, Gema Urteaga, Mikel Iturriotz, Imanol Irazustabarrena, Elixabet Pagola eta Izaro Zinkunegi

aritu ziren. Andoni Egañak aurkeztu zuen saioa, eta epaile lanetan aritu ziren Bakarne Urreaga, Zigor Leunda eta Aitzol Astigarragak txapela Urretxuko Amaia Iturriotz-i ematea erabaki zuten. Txapeldunorde, bere anaia Mikel Iturriotz izan zen saio polit eta parekatuaren ondoren. Guztira Gipuzkoako 18 urtetik beherako 18 bertsolari gaztek hartu du parte aurten bat bateko txapelketan, eta 14 urtez azpikoan 72 bertsolari taldeetan banatuta.

## Hiru aldiz txapeldun

Dena den, idatzizko txapelketan Ane Labakaren nagusitasuna handia da. Hiru aldiz jarraian jaso du lasarteoriarrak bertso paper onenentzako sari hau, aurten, maiatzaren 28an bertan, Lezon.

Guztira, Lehen Hezkuntza eta Batxilergoko ikasleen 1.072 lan jaso dituzte aurten

eta DBHko bigarren zikloko ikasleen artean Ane Labakaren "Gauak" bertso sortari eman diote lehen saria. Antigua-Luberri ikastetxean ari den herritarrak azken hiru urtetan segidan irabazi du sari hau. Aipamena jaso duten lau bertsolari gazteen artean da Amaia Iturriotz.

## Gaztetxetako finalean

Bestalde, Deba Barreneko gaztetxetan jokatzeko Plazatik Gaztetxera sariketako finalean kantatuko du Ane Labakak larunbatean hilak 5 bazkalostean Mutrikuko gaztetxean, Asier Azpiroz, Beñat Iguaran, Hodei Barroso, Ander Lizarralde eta Mikel Artolarekin batera.

Aipagarri da, Lasarte-Oriako Bertso Eskolan aritzen diren hiru bertsolari gazteak arituko direla aipatutako finalean, Asier Azpiroz Zubietakoa,

Beñat Iguaran Villabonakoa eta Ane Labaka Lasarte-Oriakoa.

Anek Elgoibarko kanporaketa irabaziz lortu zuen finaleko txartela maiatzaren 28an. Ane berak esan digunez, poz pozik dago, "iaz, asko gozatu nuen finalean, Beñat Iguaran ikusten, giro bikaina izan zen eta aurten parte hartzearekin oso pozik nago. Hor egotearekin bakarrik konforme". Kanporaketak Deba, Soraluze, Mendaro eta Elgoibarko gaztetxetan jokatu dira maiatzeko lau ostiraletan eta Plazatik Gaztetxera IX. Txapelketako finala larunbat arratsaldean jokatu da, 14:30etan hasiko den bazkariaren ondoren.

Pasa den ostiralean, maiatzaren 28an, jokatu zen laugarren eta azken kanporaketa Elgoibarko Gaztetxean. Ane Labaka izan zen irabazlea, buruz burukoan Mikel Artola alegiarra gainditu eta gero. •

#Gipuzkoa



**Krisiaren aurkako  
2010 Plana**  
100 milioi euro

**Obra publikoa  
eta azpiegiturak**

Gipuzkoan badugu Plana:  
Inbertsio publikoa azkartzea, lurralde osoak ahalmen handiko bide-sare ezin hobea izan dezan.

 GIPUZKOA  
zurekin, aurrera.



Ane Labaka, Gipuzkoako Eskolarteko txapelketako finalean. Aurten ere, idatzitako bertso sorta onenaren saria jaso du.

**ELEKTRIZITATEA**

- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak
- Material elektrikoak
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak

**ARREGUI**



Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA



# Teresa Sorgina gaur dator Zabaletara

Asteartean hasi ziren jaiak, haurrak izan dira protagonista egun hauetan

**B**onba japoniarrak, haurrentzako jolasak, antzerkia... Ederki gozatu dute Zabaletara auzoko jaietara hurbildu diren haurrek eta asteburuan ere horretarako aukera izango dute.

Zabaleta auzoko jaiak asteartean hasi ziren eta igaro diren hiru egun hauetan haurrak izan dira protagonista.

Asteartean, haurrentzako jokoak egin ziren eta asteazkenean, opariak lortzeko arrantzan ibili ziren gaztetxoak. Ondoren, *Koloreak* eta *Mimo ariketak*, Landaberri ikastolako LH1 eta LH3 mailako antzerki lanak, ikusi zituzten. Atzo, berriz, Zabaleta auzoko Antonio plaza Iruñea txiki bilakatu zen, zezenak ere ikusi ziren.

Zuriz jantziak eta painelu gorria soinean, herriko hainbat gaztetxok parte hartu zuten Pirritx, Porrotx eta Mari-

mototsen *Gora Sanfermin!* pailazoan grabazioan.

Eta egunero jaurti dituzte bonba japoniarrak auzora igo diren guztientzat.

## Hainbat ekintza

Asteburuan ere milaka ekintza burutuko dira auzoan. Gaur, esate baterako, Teresa Sorgina iritsi baino lehen antzerkia eta haurren merienda egongo da. Gainera, Teresa Sorginak opariak ekarriko ditu bertan dauden umeen artean zozketa egiteko.

Larunbat arratsaldean, haurrentzako aparra, *Galtzagorri to*, *Inaxito* antzerkia eta helduentzako eta haurrentzako herri kirolak egongo dira.

## Igandean, egun pasa

Eguraldiak laguntzen badu, familia plana egin eta Zabaletan egun pasa egin daiteke igandean.



Zabaletako plaza haurrez bete da egun hauetan. Asteazkenean, antzerkia ikustez gain, arrantzan ibili ziren.

Eguerdian, Landaberriko ikastolako gaztetxoek dantza saioa eta proba mistoa ikusteko aukera dago, baita Zabaletan bazkaltzeko ere. Bazkalostean, giro bikaina izango da,

kantu saioa eta dantzaldia, gero, Teresa Sorginari agur esan baino lehen.

## Heldu eta gazteak

Honetaz guztiaz gain, egun

hauetan, heldu eta gazteek ere ederki pasatzeko aukera izango dute Zabaleta auzoan, dantza, musika, bertsoak...

Beraz, hurbildu eta gozatu auzo honetako jaietaz. •

Ikertzaileak eta berritzaileak gara, ikasteko eredu propioa daukagu...

desberdinak gara! Arrazoi gehiago behar dituzu?

**MATRIKULA ZAITEZ MONDRAGON UNIBERTSITATEAN!**

**PREST**

**m**

**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**

**ATE IREKIAK**

Goi Eskola Politeknikoa  
Biteri Ikastetxe Nagusia

**ARRASATE**

EKAINAK 12 larunbata - 11:00

etorri aurretik izena eman!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

Kiroletako agenda

**FUTBOLA**

**Larunbata 05**

16:30ean, Lazkao-Ostadar (Emakumeoen Liga, kopa finala) Usabal, Tolosan.  
17:00etan, Ostadar-Oiartzun (I. kadetea, 3. postua jokoan) Michelinen.

**FUTBOLA 7**

**Larunbata 05**

20:00etan, AAVV Belkara-Spartak de Obelix (III. maila) Ugaldetxo, Oiartzunen.

**ARETO-FUTBOLA**

**Larunbata 05**

19:00etan, Eskolapioak-ISU Leihoak (Gipuzkoako Liga, I. maila finala) Galtzarabardako kiroldegia, Errenterian.

**MOSSO MEMORIALA I. FASEA**  
Kursiban atzeratutako partidak  
**Ostirala 04**

20:30ean, ISU Leihoak-Izarra

**Larunbata 05**

09:15ean, *Biyona-Okela*  
10:15ean, Buenetxea-Viña del Mar  
11:15ean, Izkiña-Oria Krist.  
12:15ean, Obelix-Morrison  
15:00etan, Epel-Goiz Argi  
16:00etan, *Naiban-Tragoxka*  
17:00etan, *Siglo XX-IIargi*

**Igandea 06**

09:30ean, IOB H.K.-Ainhoa

**ATLETISMOA**

**Larunbata 05**

17:00etan, LOKEko atletik kadete, jubeil, junior eta beterano mailako Gipuzkoako txapelketako 3. jardunaldia dute, Anoetako miniestadioan.

**Igandea 06**

10:30ean, Landaberriko neska gazte taldeak alebin mailako eskolarteko Gipuzkoako txapelketan parte hartuko dute, Errenterian.

**TXIRRINDULARITZA**

**Larunbata 05**

16:30ean, Bazpi txirrindularitza eskolako gaztetxoek Zumaiko Sarian parte hartuko dute, Zumaian.

**Igandea 06**

08:00etan, Ostadarreko zikloturismo taldeak Elgoibarrera irteera egin du.

**PILOTA**

**Larunbata 05**

16:00etan, Oiarpe2-Intza I (Eskuz binaka, alebinak 2. urtea) Ikaztegiatan.  
16:00etan, Oiarpe I-Intza2 (Eskuz binaka, infantilak) Zestoan.  
16:00etan, Intza I -Euskal Jolas I (Eskuz binaka, infantilak) Zestoan.  
16:30ean, Igeldo-Intza (Eskuz banaka, seniorra) Igeldon.

**PALA**

**SANTA ANA PALA TXAPELKETA**  
**Astelehena 07**

19:00etan, Jon Begiristain eta Mikel Begiristain-Juan Luis Yeregi eta Martin Iparragirre.  
20:00etan, Xabier Otaegi eta Zigor Iriondo-Josu Uzkudun eta Xabier Sedano.

**Asteartea 08**

19:00etan, Joserra eta I. Lizaso-Jon Pagola eta Jesus Ferreira.  
20:00etan, Edu Jauregui eta Fran Ariztimuño-Eneko. Iradi eta Ibon Azkonobieta.

**Asteazkena 09**

19:00etan, X. Etxezarreta eta M. Bardaji-J. Fraile eta G. Martinez.  
20:00etan, Goiko eta Azkona-Mundu eta Xenki.

**Osteguna 10**

19:00etan, I. Arluziaga eta I. Bardaji-Jon Lizaso eta Txema.  
20:00etan, Shanti eta Bernatiz-A. Zubizarreta eta X. Eugi.

**SQUASHA**

**Kiroldegian, 18:00etatik aurrera Ostirala 04**

**Txapeldunen fasea**  
Aitor Artola-Iker Cañedo  
Agustin Erkizia-Kinin Calvo

**Astelehena 07**

**Txapeldunen fasea**  
Iker Cañedo-Mikel Zugasti  
Alberto Udabe-Agustin Erkizia

**Asteartea 08**

**Txapeldunen fasea**  
Kinin Calvo-Aitor Artola

**BOLA-JOKOA**

**Igandea 06**

Egun osoa, Ostadarreko bola joko taldeak Emakume, beterano, jubenil eta infantil mailako Gipuzkoako txapelketa Zerainen.

# ISU Leihoak areto-futbol taldeak igoera du jokoan

Kiroletako denboraldiak amaitzeaz daude eta herriko areto-futboleko Aldaz H. K. eta ISU Leihoak taldeek ederki hartu behar dute atsedena.

Hala ere, ISU Leihoak taldea oraindik lehian da. Gipuzkoako Ligan bigarren postua eskuratu zuen Eneko Molinaren taldeak eta aste hauetan, play off-etan daude murgildurik.

Lehenengo astean, finalerdietan Azitain Erreteriari 5 eta 2 irabazi zion eta aste honetan, finala jokatu behar du Eskolapioen aurka, 19:00etan Errenteriako Galtzarabarda kiroldegian.

Eneko Molinaren mutilek igoera izan dute helburu urte honetan, iaz gertu ibili ziren. Aurten irabaziz gero, txapelketako garaile izango lirake eta igoera eskura izango lukete.



Denboraldi ona egin du ISU Leihoak taldeak eta finala jokatu du bihar.

**Aldaz H.K. mantendu**

Nazional B mailan, berriz, Aldaz H.K.-ak bere helburua lortu du.

Zortzigarren postua eskuratu du eta sailkapen erdialdean geratu da, maila mantenduz. •

## Emakumeak eta kadeteak helburuaren bila



Ostadarreko emakumeen taldeak 2007an lortu zuen kopa herrira ekarri nahi du.

Emakumeen Ligako eta kadeteen lehen mailako Ostadar futbol taldeek asteburu honetan eronka handia dituzte.

Emakumeek kopako finala jokatu dute Lazkaoren aurka Tolosan. Lehenengo astean, 4 eta 1 garaitu zuten Elgoibar taldea eta finalerako txartela eskuratu zuten.

Kadeteek, aldiz, 3. postua eta igoera dute jokoan.

Lehenengo astean, joaneko partidari hutsa berdindu zuten Oiartzunen aurka. Era honetara, aukerak mantentzen ditu eta aste honetan garaipena lortu behar du Michelinen. •

## Lasarteoriarrak Euskadiko Kirol Jokoetan

Euskadiko eskolarteko Kirol Jokoak burutu ziren lehenengo asteburuan, maiatzak 29 eta 30ean, Barakaldon.

Bertan, infantil mailako hiru lasarteoritarrek parte hartu zuten emaitza onak lortuaz.

Ane Galardik, luzera-jauzian lehenengo postua eskuratu zuen ia 5 metroko jauziarekin.

Bestetik, Iñigo Ibarburu igerilariak lau probatan parte hartu zuen eta 4x100m libreetan Gipuzkoako taldearekin irabazle izan zen eta 4x100 m. estiloetan bigarrena, eta bakarka, 3. postua egin zuen 100 m. eta 100m. tximeleta-eran.



Ane Galardik luzera-jauzian lehiatu eta urrezko domina ekarri zuen herrira.

Paula Uli gaztetxoak tenis lehiatu zen. Finalerdietan sartu zen, baina ez zuen

zorte onik izan eta, azkenean, laugarren postua eskuratu zuen. •

Kiroletako oharrak

**Giro-ko porrako sariak gaur banatuko dira**

Ostadar K.F.-k antolatzen duen Giro-ko porrako sariak, urdaizapikoak eta diru sariak, puntu gehien lortu dituen tabernan, hau da, Ainhoa Tabernan, banatuko dira gaur, 19:00etan. Antolatzaileek puntual izatea eskatzen dute.



## Egunero

### Erakusketa

MUNDU BAT, MILAKA AURPEGI, Aitzol Etxegoien lasarteoriatarren argazki erakusketa. Jalgi kafe-antzekian, egun osoan zehar.



## Ostirala, 4

### Festa

JAI EROTIKOAZ gozatzeko aukera, txupito erotikoak... Udaberri tabernan, gauerdian.

## Ostirala, 11

### Kontzertua

LASAROSE taldea, Funky Folk estilora jorratzen du Bartzelonatik etorritako taldeak. Jalgi kafe-antzekian, 23:00etan.

## Ostirala, 25

### Kontzertua

ORENDIK (Funk, rock) eta LAUROBA (Pop rock) taldeen emaldia. Jalgi kafe-antzekian, 23:00etan.



## Haurren heziketa prozesuan zigorra aztergai

ZIGORTZEA BEHARREZKOA AL DA HEZTEKO? hitzaldia eskainiko du Enkarni Gomezek Udalaren Sanitateko Departamentuak antolatuta.

EKAINAREN 8AN, ASTEARTEA  
KULTURETXEAN 18:00ETAN  
GAZTELANIAZ

## Zabaleta auzoko Jaiak

### Ostirala, 4

18:00 ANTZERKIA

18:30 Haurrentzako merienda.

19:00 "TERESA SORGINA"REN JAITSIERA auzoko trikitilariekin.

Ondoren haurrentzat opari zozketa.



21:00

KANTU AFARIA "Montexio" eta "Xumela" abesbatzekin.

23:30 DANTZA GARAIKIDEAREN emaldia.

00:00 DANTZALDIA, *Trikihots* eta *Hitzartu* taldeekin.

### Larunbata, 5

09:00 DIANA

11:30 Joxe Migel Aranzadiren oroimenezko 3. ESKOBA TXAPELKETA.

15:30 Joxe Migel Aranzadiren oroimenezko 3. MUS TXAPELKETA.

16:30-19:00 haurrentzako aparra festa

18:30 GALTZAGORRIE TO, IÑASITO antzerki saioa.

19:30 HERRI KIROLAK heldu eta haurrentzat

23:00 bertso saioa: Maialen Lujanbio, Amaia Agirre, Jon Maia eta Unai Muñoa. Gai jartzailea Andoni Otamendi.

24:00-04:00 GAZTE ROCK GAUA "Sortuz", "Aritz Sound System" eta talde "sorpresa".

## Igandea, 6

DENOK BASERRITARREZ JANTZITA

09:00 DIANA eta auzo garbiketako txapelketa

11:00 Landaberri Ikastolako DANTZA SAIOA

13:30 PROBA MISTO NAGUSIA: Tellerigaina-Auzoko Gazteak Larrekoetxe/Ostadar-Erkie.

14:30 HERRI BAZKARIA, kantu saioarekin.

18:00 TOKA TXAPELKETA

18:00 "ARRABOTS" taldea

20:30 "TERESA SORGINA"RI AGURRA eta azken traka.

## Oharrak

### Calatayud-eko Hartziko monastegira txangoa

Maria Auxiliadora elkarteko kideek ekainaren 20ean txango antolatuta dute Calatayud-eko Hartziko monastegira txangoa. Autobusa Txartel hoteletik aterako da goizeko 7:00etan. Prezioa 30 euro dira eta monastegirako sarrera ez dago barne. Informazio gehiago edo izena emateko, 943 363 675 edo 943 360 042 zenbakietara deitu behar du gaueko 21:00tik 22:00etara.

### Ostadarreko entrenamenduak

Ostadar hurrengo denboraldia prestatzen hasi da eta hurrengo entrenamenduen deialdia egin du datorren asterako Michelinen: alebinak, 1999.an jaioak, ekainak 9an, asteazkenean, 17:30ean; Infantil mutilak 1997. eta 1998. urteetan jaioak, ekainak 8an, asteartean, eta ekainak 10ean, ostegunean, 17:30ean; infantil neskek 1997. eta 1998. urteetan jaioak Ostaderreko egoitzan izena eman behar dute; kadete mutilak 1996. eta 1995. urteetan jaioak, ekainak 8an, asteartean, eta ekainak 10ean, ostegunean, 18:45ean; kadete neskek 1996. eta 1995. urte-

tan jaioak, ekainak 9an, asteazkenean, eta ekainak 11n, ostiralean, 18:45ean; jubenil mutilak 1994, 1993 eta 1992. urteetan jaioak, gaur, astelehena, eta ekainak 11n, ostiralean, 17:30ean; erregional neskek, 1994.an jaioak edo helduagoak, ekainak 8an, asteartean eta ekainak 10ean, ostegunean, 20:00etan.

### Herrera de la Mancha- martxa

Buruntzaldea eta Oarsoaldeko presoen aldeko kolektibok Herrera de la Mancha espetxera martxa antolatuta dute ekainaren 5rako. Autobusak Hernanitik aterako dira eta hauetan apuntatzeko, ekainaren 4a baino lehen, Xirimiri elkartera hurbildu eta izena eman behar dute interesatuek.

### Txokotako gurasoentzako bilerak

Udako Txokotan parte hartuko duten haurren gurasoentzako bilerak ekainan izango dira. 2005 eta 2007 bitartean jaiotakoek bilera ekainaren 10 izango da, 17:00etan euskaraz eta 17:45ean gaztelaniaz. 2002 eta 2004 bitartean jaiotakoek ekainaren 10ean dute ere, 18:30ean euskaraz

eta 19:15ean gaztelaniaz. 1998 eta 2001 bitartean jaiotakoek berriz, ekainaren 11n dute bilera, 17:00etan euskaraz eta 17:30ean gaztelaniaz. Abuzturako izena eman dutenek berriz, ekainaren 11n arratsaldeko 19:00etan dute bilera.

### Sorgin Dantzaren entsaioak

Urtero bezala, Ttakunek San Pedro jaietan antolatzen duen Sorgin Dantzan parte hartzerko entsaioak antolatuta dira ekainaren 8an hasita, astearte eta ostegunetan 20:00etan Landaberri BHLn.

### Txakurrak lasai askatzeko parkea

Hainbat herritarrek udalari proposamen bat luzatu diote txakurrek bere beharrak egiteko eta lasai askatu ahal izateko parke bat egokitu dezan. Horretarako herritarren sinadurak bildu behar dituzte. Interesa duzenok Lasarte Albaitaritzan klinikan, Zoomania dendan, Buenetxea tabernan eta Akeita tabernan dituzue orriak sinatzeko.

### Batxilergoko titulua

Lasarte-Oriako Institutuak jakin arazi nahi du 2009an ikasketak bukatu zutenek,

batxilergo tituluak jaso ditzaizketela goizeko 9:00etatik 13:00ak bitartean. Norberak jaso behar du, bestela nortasun agiriaren fotokopiarekin jaso daiteke ere.

### Udaltzainek jasotako gauzak

Udaltzainen bulegoak herriko bizilagunei jakinarazten die ondoko gauza hauek dauzkatela jasota, diru-zorroa, urrezko katea, zillarrezko zintzilikarioa, belarririkako belza eta doratua, bi betaurreko graduatu, erloju digitala, urrezko aliantza, Jose Luis grabaketarekin eta bi baloi.

Hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hila-beteko epean jaso behar dituzte. Horrela izan ezean, legeak ezarritako norakoa emango diete.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei arren eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

### Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info

## Eskutitzak

### Erantzun azkarra Gizarte Zerbitzueta arazoari

San Pedro eta Arantzazuko Ama parrokiko Karitasek idazki honen bitartez Gizarte Zerbitzuetan bizi zen egoerari emandako erantzunari buruz gure balorazioa agertu nahi dugu.

Araoari arduraz eta azkar erantzuna ematen saiatu dela eta erantzuna egokia eta azkarra izan dela estimatzen dugu. Hartu diren neurri guztiei buruz gure iritzi ona agertu nahi dugu. Ahultasun egoera bizi duten gure herritarrak kontuan hartuak izan dira, eta Gizarte Zerbitzueta langileena ere bai.

Gure esker ona ere azaldu nahi dugu udal agintariak egindako harreragatik. Eta orain arte bezala, laguntza behar dutenen pertsonen alde lankidetzarako gure jarrera agertzen dugu.

Lasarte-Oriako Karitas

# Elias Goikouria, hogeitun urte Zero Sette akordeoi orkestrari eskainiak

Lasarteoriatarak 1990an hartu zuen herriko akordeoi joleen zuzendaritza

1990ko maiatzaren 14ean, Billabonako Zineman, Elias Goikouriak bere lehenengo kontzertua egin zuen Zero Sette Akordeoi Orkestrako zuzendari bezala. Hogeitun urte igaro dira geroztik, baita hamaika ekitaldi eta akordeoi jole ere. Hala ere, lehenengo eguneko indar eta ilusio berarekin jarraitzen du lanean.

## TXINTXARRI

**Z**ero Sette akordeoi orkestraren sortzaile eta zuzendari Juan Antonio Mercero 1990. urtean, eman zion erreleboa herriko gazte bati, Elias Goikouriari. Hamaika kontzertu eta partitura zuzendu ditu geroztik, baita orkestra kide ezberdinak ere. Bi diska grabatu ditu eta orkestraren 20. urteurrena bete du zuzendari bezala. Oraingoan bere txanda da, Eliasek hogeitun urte egin ditu zuzendari lanetan.

Bere lehenengo kontzertua arestian aipatu bezala, Billabonan izan zen eta, herrian, urriaren 20ean, Biyak Bat Erretiratu elkarteak, Arantzazuko Amaren elizan, antolatutako Zaharren omenaldian.

2007a izan zen emanaldi gehien zuzendu zituen urtea, 16 kontzertu, eta horietako bat, gainera, berezia izan zen Zero Sette Orkestrak Kursaal aretoan jotzen zuen lehenengo aldian zelako, Donostiako Orfeoak antolatzen duen Unicef jaialdiaren barruan.

Honetaz gain, bere zuzendaritzapean, urtero antolatzen den eta izena duen Akordeoi jaialdia sortu zen.

## Sariak eta bidaia

Aipatzekoak dira orkestrak bere zuzendaritzapean lortutako sariak: Ourenseko Lehiaketa,

tako lehen saria, Reina Sofia saria, Torrelavegako lehiaketako lehen saria hainbat urtetan, Cedeirako lehiaketako lehen saria eta Frantziako Andrezieukoko Sari Nagusian zilarrezko domina, baita Ginebrako Nazioarteko Sari nagusian ere.

Horretaz gain, bidaia ugari egin ditu orkestrak Estatu mailan, baita Europa mailan ere. Polonia, Frantzia, Italia, Suitza edo Alemania bisitatu ditu orkestrak Elias Goikouria zuzendari duela. Estatuan, 48 emanaldi eskaini ditu Valladolid, Leon, Torrelavega...

## Herriko ekintzetan ohiko

Lasarte-Oriako ekimenetan ohiko izaten da Zero Sette akordeoi orkestraren presentzia, hala nola, Zaharren omenaldiko jaialdian edo San Pedro jailetako omenaldian.

Baina, beste herriko taldeekin batera ere lana egin du eta hainbat ekitaldietan ere zuzendu ditu. Aipatzekoa da, Alboka Abesbatza eta Erketz E.D.T.-rekin batera, Euskararen Maratoiari amaiera ematen dion ikuskizuna, *Eusko Irudiak*.

Hurrengo astean, ekainaren 12an, Alkoholiko Anonimoen elkarteak haien 75. urteurrena ospatzeko antolatutako jaialdian ikusi ahal izango dugu orkestra zuzentzen. Zorionak eta urte askotarako, Elias! •



Elias Goikouriaren zuzendaritzapean, Zero Sette akordeoi orkestrak Reina Sofia saria irabazi zuen. Arg.: Zero Sette



Hogeitun urte igaro dira, Elias Goikouriak orkestrako zuzendaritza hartu zuenetik eta herrian maiz ikusi dugu bere lanetan..

# SALAGALA

ZATOK ZURE DISKOTEKA BERRIA EZAGUTZERA!

GIRORIK HOBERENA LAGUNARTE PAREGABEAN!

**Ostegunetan** pop-rock kontzertuak

**Ostiralean** salsa

**Larunbatetan**  
17:30ean areto dantzak eta musika zuzenean Aguirren anaien eskutik  
23:30ean diskoteka

**Igandetan**  
17:30ean dantza eskolak eta animazioa Fermin eta Nataliaren eskutik (salsa, merengea, cha cha cha...)  
Areto dantzak 21:30ak arte.

Galarreta Jai-Alai Frontoia • Hernani 20120 • Tel.: 943 333 116 • [www.sala-gala.com](http://www.sala-gala.com)